



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/07/05 Udaletxean 18.00-19:30



Gaurkoan bildu gara,

- Adur Ezenarro (Bildu)
- Jose Ignacio Mendizabal (Herri ekimena)
- Eurne Huesa (Landarlan Ingurumen elkarte)
- Patxi Arrospide (Herritarra)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Emilia Roman (Herritarra)
- Angelica Moreno (Alkateordea, Alkatearen izenean)
- Manuel Iturrioz (EAJ)
- Juan Ignacio Alonso (Ordizia Orain)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Gai ordena

Bileran ondoko gaia landu zen:

- 1. Aurreko aktaren onarpena**
- 2. Jaietan hondakinen bilketa zerbitzua**
- 3. Ordenantza**
- 4. Hurrengo bilera**

Aurreko aktaren onarpena

Aurreko akta onartutzat ematen da baina hainbat komentario egin dira:

- Eurnek bi aldaketa proposatu ditu aurreko aktan.
 - o Edukiontzien bidezko bilketa aldatu diren udalerrietan gaikako bilketa tasa jaitsi egin da, Olaberriko datua ez du ezagutzen.
 - o Edukiontzien erosketa boletinean argitaratu zen ekainaren 3an.
- Arrasateko informazioa: Uztailako bilerara gonbidatu zaio baina lan kargagatik ezezkoa eman dute. Informazioa bidaltzeko eskatuko zaie eta hau aztertu ondoren erabakiko dugu irailan beraiengana gerturatzea.
- Sasietak komertzioetako datua ez du eman: Edukiontzien bilketa jartzen dutenean, komertzioetan atez ateko zerbitzua emango dutenez, bi zerbitzuak bereizi egin beharko dituzte. Beasainen ere egoera berdina egongo denez, azkenean kalkulatu egin beharko dutela esaten da. Irailan berriro eskatuko dugu.
- Gaizki ateratako kuboen zenbatekoa: Sasietak ez du datu hau erregistratzen.
- Udal aldizkaria: uztailak 5 edo 6an banatuko da.
- Portaletako testua: jaietako zerbitzu bereziaren bandoa jarri behar denez, hondakin mahaiak prestatutako bandoarekin batera jarriko da. Biak batera jarriko dira.
- Puntu beltzak: Sasietari eskatu beraiantzat zeintzuk diren puntu beltzak.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/07/05 Udaletxean 18.00-19:30



- Bilketa sistemaren aldaketari buruzko ordainketan:
 - o LANDARLAN: Alkateak esan zuen mahai honetan edukiontzien ordainketan adostu zela ezezkoa ematea eta Sasietako bileran mahai honetako bi talde politikoak abstenitu egin zirela. Honen inguruan, hitz egin zenean ez zeuden talde politiko guztiak eta hitz egin zen baina ez zen akordioa lortu. Ez zen ez baiezkoa ez ezezkoa esan.
 - o BILDU: Lehenengo bileratik Sasietako Iñakiri galdetu zitzaion nork ordaindu behar zuen aldaketa eta befi erantzun zuen ez zekiela.
 - o ANGELICA: Ordiziako bi ordezkariak abstenitzea ez duela ulertzen esan du. Mahai honetan Irabaziko Carlosek askotan egin du ordainketa honen aurka joan beharreko aipamena.
 - o BILDU: EAJko ordezkariak ordainketa honen inguruko informazioa zenuten eta ez zenuela eman esan du.
 - o ANGELICA: Neri ordainketa honen inguruko informazioa Igor Egurenen bidez iritsi zitzaidan, Ordiziako ordezkariaren bidez. Gure ordezkarien ezezkoarekin badakigu ez genuela ezer lortuko.
 - o TEKNIKARIA: Alkateak ordainketa hau 2016tik aurrera emango den sistema aldaketatan izango dela esan zuen.
 - o ANGELICA: Mahai honetan bi ordezkariak zaudete eta 2016rako ze akordio jaso den jakitea gustatuko litzaiguke, informazio hori mahai honetara ekartzea.
 - o BILDU: Nik ulertu nuen Lazkaok edukiontzien stock-a aprobetxatu zuela.
 - o ORDIZIA ORAIN: Sasietako Udal Batzan onartu zen. EAJ eta PSEK erabaki dute.
 - o ANGELICA: Sasietako Udal Batzan Bildu ere badago.
 - o ORDIZIA ORAIN: Baina gehiengoak irabazten du.
 - o EAJ: Baina Ordiziako ordezkariak ezezkoa eman bazuten agian gehiengo horrek pentsatu egingo luke erabaki hau.
 - o LANDARLAN: Sasietari eskatu behar baizitzaion Sasietak sistemaren aldaketa ordaintzeko, errefusarengatik ordaintzen dena ere herri bakoitzak sortzen duenaren arabera ordaintzea eskatu beharko litzaioke.
 - o EAJ: Sortzen den errefusarengatik zergatik ez den ordaintzen galdetzen du.
 - o LANDARLAN: Noiztik dakigu herri bakoitzak zenbat sortzen duen.
 - o EAJ: Lehengo urteko martxotik datuak ditugu. Ordiziako interesak begiratu behar ditugu.
 - o LANDARLAN: Ordiziako eta mankomunitateko interesak begiratu behar dira.
 - o EAJ: Bai arrazoi duzu, baina Ordiziako interesak defendatu behar ditugu. Edozein talde politikoari aurre egin behar bazaio egiten zaio.

- Jaietako plastikozko edalontziak nora bota behar diren: edalontzi honek hirukiaren sinboloa dauka eta birziklagarria da.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/07/05 Udaletxean 18.00-19:30



Jaietan hondakin bilketa zerbitzua

Bilketa zerbitzuaren aldaketak aztertu dira.

Uztailak 26an bilketa arratsaldean edo beti bezala egingo den erabakitzeko dago. Denen artean adosten da uztailak 26an bilketa beti bezala egingo dela.

Edukiontzia jarri behar dira kaleetan, jendeak aukera izateko bertara botatzeko plastikozko edalontziak edo bestela tabernetan edalontzi berrerabilgarrien erabilpena bultzatu beharko litzateke.

Hurrengo urtean, edalontzi berrerabilgarrien erabilpena bultzatu behar da. Udalak tabernariekin bilera bat egin behar du eta denen artean soluzio bat bilatu behar da.

Zabor bilketa puntu gehiago sortu behar dira: plaza, plazuela eta frontoian. Aurten zezen plaza poligonoan jarriko dute eta bertan ere jarri beharko litzateke. Gainera, tabernak dauden kaleetan ere jarri beharko litzateke. Puntu hauen eskaera Sasietari egingo zaio.

Jaien inguruan herritarrekin eta elkarteekin egin diren bileratan eta jaietako programan ere hondakinak gaika bereiztu behar ditugula adierazi da.

Ordenantza

Udalsarea 21eko ekitalde batetan landutako ordenantza ereduarekin lana egingo dugu. Sasietari bere ordenantza bidaltzeko eskatu zaio eta beraiek ordenantza berri egin behar dutela erantzun dute.

Sasietak bere ordenantza berritzen badu ez da hobea izango itxoitea berritze honi.

Ordiziako ordenantzan puntu batzuk egongo dira Sasietako ordenantzari luzatuko zaiona baina beste batzuk Ordiziako ordenantzan erregulatuko dira.

Sasietari galdetuko zaio zein puntu aldatuko dituen beraien ordenantza zaharrean.

Ordenantza eredu bakoitzak ikusiko du zein puntu dagokion Mankomunitateari eta zein Udalari.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/07/05 Udaletxean 18.00-19:30



Landarlanen iradokizuna:

Aurreko bileran Alkateak esan zuen edukiontzien kokapena aztertzen ari direla eta nik proposatu nuen kokapen horiek bilera honetan aztertzea. Kokapen hauen irizpide teknikoak bilera honetan aztertzea.

Atez ateko sistema jarri zenean, Udalak proposatutako puntuetan aldaketak proposatzeko aukera eman ziguten.

Teknikoki egiten den lanean ez dute kontutan hartzen bakoitzak duen interesa, teknikoki lantzen da zein den leku egokia kamioia pasatzeko, kokapen egokiena,..... baina interes pertsonalak eduki gabe.

Bizilagunek dituzten kexak aztertuko dira eta aldaketak egin behar badira egingo dira.

Hurrengo bilera

Iraileko bilera: irailaren 20an arratsaldeko 18:00etan.